

IÑIGO LAMARCA

Handitzean, nork izan nahi du Ararteko?

| SUSTRAI COLINA |

Argazkia: Dani Blanco

«Arartekoak Gobernuaren kontra-boterea izan behar du»

Hemen EAEko biztanleen pena guztiak entzuten dituen!

Ez da nekagarria, motibagarria baizik. Motibazio mugikorraren bateria kargatzailea bezalakoa da: energia guztia xahututa bukatzen duzu eguna, baina biharamunerako erabat kargatuta zatoz.

Motibazio handia beharko duzu egun batean Ertzaintzak zure gomendioei kasu egiteko.

Arartekoak gobernuaren kontra-boterea izan behar du zentzurik demokratikoenean.

Arartekoa kontra-botere inpartzial eta independentea bada, zu hezur-haragizkoa zara?

Gurea giza-eskubideen printzipioak oso barneratuta dituzten 50 pertsonatik gorako orkestra da, eta ni orkestra zuzendaria baino ez. Alegia, nik independentzia eta inpartzialtasuna zor ditudala, instrumentu bakoitza jotzen duenak zor dituen bezalaxe.

Zure biografiek zure homosexualtasuna zor digutela dirudi. Noiz irakurri dugu "Iñigo Urkullu, heterosexuala"?

Lege eta gizarte mailan asko egin da aurrera, baina oraindik ere homosexualitatea guztiz normala ez den sakoneko ideia dago. Tira, Obama beti izango da lehendakari beltza, goi-kargu bat hartzen duen emakumeari beti azpimarratuko zaio generoa...

Baina euskal herritarrak ez al ginen aurrerakoi, tolerante eta guayak? Ala hori egoera ekonomiko erosoetan bakarrik zen?

Thomas Hobbesek garbi esan zuen: "Primum



vivere deinde philosophari». Baina zeintzuk dira bizitzeko beharrianak? Ez al ditugu gauza gehiegi sartu oinarritzko beharrianetan? Gauzak ondo zihoazenean ere, ez al diogu garrantzi handiegi eman diruari?

Tira, gizalegea beharrian denean legea gurtzen itsutu gara.

Batzuetan gizalegeak ez al du bazterkeria sortzen? Beraz, bat, Legebiltzarretik ateratzen diren legeek dute lehentasuna. Bi, lege horiek guztien eskubideak errespetatu behar dituzte. Hiru, legeak gizartearen gizalegearekiko zilegitasuna behar du. Eta lau, gizalegeak ere eboluzioa zor du.

Aieteko Adierazpena dirudi honek! Bakeaz, konponbidez, edo dena delakoaz iritzirik?

Giza-eskubide funtsezkoenak testuinguru demokratikoa behar dute. Horretarako, indarkeria mota guztiak ondorio guztiekin onartu, asumitu eta oso gogoan izan behar ditugu. Kontua ez baita gertatutakoa itsuitsuan gainditzea, gertatutakoaren jabe izanik gainditzea baizik.

Ararteko postua ez dela betiko esango zizuten, ezta?

Mandatua bukatzean Gipuzkoako Batzar Nagusietako nire legelari plazara itzuliko naiz. Zehazki zertan ez jakin arren, gizarte-ekintzan segituko dudala dudarik ez izan, eta azken urteetan izan ez ditudan denbora, arnasa eta tenplea berreskuratzean idazteko asmoa daukat. ■

